

Grant Stewart + Dextery, Altxerrin

Grant Stewart saxofoi jole kanadarrak ostiral honetan, hilak 26, emango du azken kontzertua Donostian, Altxerri jazz tabernan, 21.00etan. Aurreko bi emanaldietan bezalaxe, Dextery taldea izango du lagun. Xabier Monge piano joleak, Ignasi Gonzalez kontrabaxu joleak eta Esteve Pi bateria joleak osatzen dute aipatutako taldea. Munduko saxofoi jole iradokitzaileenetakoa da Grant Stewart gaztea, zinez. Sarrerak 8 euroko prezioa du.



Gay-Lesb festa Egiako Kultur etxean

Gehitu Euskal Herriko Lesbiana eta Gaven elkarteak Zinemaldiaren Gay-Lesb festa eskainiko du Egiako kultur etxean, larunbatean, hilak 27, 23.00etan. Sarrerak 12 euro balioa du. Bertan parte hartu nahi izanez gero, 902 200 096 telefono zenbakira hots egin dezakezue.



"Etengabeko Zarata Jaialdia" Altzan

Datorren ostiralean, urriak 3, hasiko da "Etengabeko Zarata Jaialdia" Altzan. Jaialdiaren lehen egunean Kobory, Antihero, Squasamento, Denak eta Ekkaia musika taldeek parte hartuko dute. Kontzertua Altzako kultur etxean (Larratxo pasealekua 55) izango da, 21.00etan. Larunbatean, bestalde, Ras, Venereal Disense, Ira et Decessus, Sinergia, Unsane Crisis, Machtetazo eta E-150 ariko dira leku berean, 19.30etan. Sarrerak 5 euroko prezioan jarriko dira salgai.



Luur-metalls eta EOS miramonen

Asteburu honetan jarriko dira berriro abian Miramongo eguarateak. Hala, larunbatean, hilak 27, Spanish Brass Luur-Metalls boskoteak eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren haize, metal eta perkusio atalak kontzertu apurtzailea eskainiko dute Miramongo Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Egoitzan. (Miramon pasealekua 124), 11.00etan.

